


A photograph of a forest landscape. In the foreground, there is a large, messy pile of cut logs and branches. Behind the pile, a grassy clearing leads to a dense forest of tall, thin evergreen trees. The sky is a pale, hazy yellow.

TXOKO

KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

[2022/10]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA



CIE: 2260

Fray Martin de Murua, 29
GERNIKA-LUMO

94-625 74 14 - 688 68 63 45
auka@auka.eu



Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?

Oka ibaiaren estuarioaren ezkerretatik eskuinera, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldeko dugu: flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Orainxe bertan, aktibitate hauek Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu. Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinu naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Behatu nahi al duzu?**

K

EKO BIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaien baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hauzak eta zeozer
gehiago!

Aurkibidea

AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	2
EKOBIDEAK (Leioa)	2
BUSTURIA	4
ARRIZURIETA (Bermeo)	5
EA	6
NÖVEREK (Gernika-Lumo)	7
BOGA ZERBEZAK (Mungia)	7
ERRIGOITI	8
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	9
GAUTEGIZ ARTEAGA	10
HEMINGWAY (Sukarrieta)	11
BASONDO (Kortezubi)	12
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	13
URDAIBAI EXPERIENCE	13
MURUETA	14
ARROLAGUNE (Arratzu)	15
ANDRA MARI APARTAM. (Bermeo)	15
MUXIKA	16
NABARNIZ	17
AULESTI	18
BERRIATUA	19
ANTSOTEGI (Etxebarría)	20
ETXEBARRIA	21
ISPASTER	22
EGUEN GOIKO (Ispaster)	23
LEKEITIO	24
LEKEITIO	25
MARKINA-XEMEIN	26
MUNITIBAR	27
MUTRIKU	28
YURRITA (Mutriku)	29
ONDARROA	30
ZIORTZA-BOLIBAR	31
LEA IBARRA	32



Planik onena gara

Ageri-ageriko eta ezkutuko txokoz beteta daude Busturialdea, Lea-Artibai eta Mutriku. Ezagutzeko makina bat leku interesgarri daude gurean, urteko edozein sasoitan egiteko natur zein kultur planik onenak!

Kostaldeko herri arrantzaleak, barrualdekoak, guztietan aurkituko duzu familian zein lagunartean egun atseginak igarotzeko eskaintza oparoa, udazkenak dakartzan kolore ederrez zipriztinduta. Planik onenaren bila ari bazara, gurean aurkituko duzu.

Etorri eta ezagutu gaitzazu!

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**

Legegordailua: **BI-2906-03 · ISSN: 2173-7118**

Helbidea: **Arretxinaga Etorbidea, 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**

Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus · www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus**

Testuak eta publizitatea: **LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA**

Busturia

Itsasadarreko padurak



Aintzina Monasterio Maguregi



David Seco
[Txirrindulari ohia]

«Atzeritik aditu asko etortzen da hegaztiei argazkiak ateratzera»

Txirrindulari profesionala izan zen David Seco. Azken urteotan telebista saio entzutetsu bateko *Busturiko patroia* moduan egin da ezaguna. Trainerua zuzentzen ez, baina Urdaibaiko itsasadarreko txoko kuttunenetako batera gonbidatu ditu bertako zein bisitariak: Busturiko paduretara. Itsasadarrean marearen gorabeherak aldatzen dute paisaia, eta horren adibide dira padurak.

Unescok 1984an izendatu zuen Urdaibai Biosfera Erreserba, eta «bere bihotza Busturia izateaz» herriarrak «harro» daudela dio Secok. San Kristobal auzokoa da, paduretarako sarbide nagusia hazi eta hezitakoa. Bizipen asko izan ditu han, hamaika oroitzapen eder. Umetan, bainatzera eta arrantza-

tzera joaten ziren, «ur-parke baten antzekoa» zen eurentzat: «Itsasgorak eta korronteeak sortutako putzuak aprobetxatzen genituen; ura beltzen zegoen lekuan bainatu, eta biboteagaz ateratzen ginen. Eta gogoan dut askok itsaskiak hartzen zituztela, inolako kontrolik barik».

Gaur egun ere aisialdirako leku ederra da, ikuspegi pribilegiatua duena. Kirolerako, arrantzarako, paseatzeko, atsedenerako... leku lasaia da, sakon usain eta arnas daitekeena. «Urdaibaiko aurpegi ezagunena itsasadarraren bokalea, hondartzak, Mundaka... dira, baina beste leku asko daude».

Urdaibaiko Biosfera Erreserba hegazti migratzailen «igaroleku handienetakoa» da, eta San Kristobaleko paduretako behatokitik ikusten dituzte askok: «Atzeritik aditu eta zale asko etortzen da argazkiak ateratzera. Euskadiko hezegune garrantzitsuena bertan egotea ohorea da. Ziklokrosean nabilenean, bertara sartzen ginen bizikletekin. Behin, Belgikako lagunak liluratuta geratu ziren. Halako uneek bizi garen inguruaren garrantziaz eta edertasunaz konturatzeko balio dute».



**BUSTURIKO
UDALA**

Axpe auzoa, 1
[Andra Mari elizaren ondoan]

94-687 00 50

faxa: 94-687 00 63
alkatea@bustira.eus
www.busturia.eus



Casa Rural
Arrizurieta
Landetxea

📍 Mañu auzoa, 43
48370 Bermeo

☎ 607 48 27 00

🌐 www.arrizurieta.es

✉ info@arrizurieta.es

Eako 'peñoia' eta begiratokia



Alex Uriarte Atxikallende



**Kepa
Lopez de
Abetxuko**
[Gida turistiko ohia]

**«Ikusgarria da olatu
erraldoiek haitz
harresiaren aurka zelan
talka egiten duten
ikustea»**

Eako badian altxor ezkutu ugari daude, eta horietako bat izen bereko errekek itsasoagaz bat egiten duen tokian dago: 'Peñoia' izeneko haitza eta begiratokia. Herrikoen artean leku oso ezaguna da, moilaren amaieran kokatua. Uda garaian, marea altu dagoenean, eatarrek begirato-kira daramaten eskaileretan gora egiten dute, eta bertako haitz-puntetatik salto egiten dute uretara. Hain zuzen ere, salto desberdin bi dituzte: goikoak, 'piko' izenekoak, zortzi bat metroko altuera du; behe-rago dagoenak, haitzaren erdialdekoak, bost metro inguru.

Kepa Lopez de Abetxuko eatarrak sarritan erakutsi izan die bazter sekretu hori lagun nahiz turistei, bisita gidatuak egin izan dituenean. «Egundo-ko ikuspegiak» dauzkala dio: «Hegoaldean, errekan gora begiratuta, Eako herrigunea, Aritza hondartza eta herriaren hondoan dauden muinoak ikus daitezke; iparraldera begiratzuz gero, ostera, Kantauri Itsasoaren handitasunaz goza daiteke, kostaldeko haitzen paisaiatz gain». Haitz horien artean, *Kaiarri eta Surtzillojente* izenekoak nabarmentzen dira. Lehenengoan ikurrina ipintzen dute sanjoanetan, herriko jaiak abiatzeko; bigarrenak «aurpegi itxura nabarmena» du.

Aurpegi desberdina neguan eta udan

Udan uretara salto egiteko igotzeaz gain, 'peñoia'-k bestelako aurpegia erakusten du neguan: «Itsasoa harrotuta dagoenean, ikusgarria da olatu erraldoiek haitz harresiaren aurka zelan talka egiten duten bertatik bertara ikustea».



**EAKO
UDALA**

Donibane enparantza, 2
94-627 52 27
faxa: 94-627 51 99
udala.ea@bizkaia.org
www.eakoudala.eus
www.eaturismo.eus



NÖVEREK



NÖVEREKen edozein motatako ekitaldiak antolatzeko, diseinatzeko eta kudeatzeko zerbitzu integrala eskaintzen dugu. Gure helburua ekitaldi bakoitza pertsonalizatzea da, gustu ona eta xehetasunak zaindiz. Zure ideia kontaguztu eta elkarrekin plan eskusibo bat sortuko dugu.

Nortzuk gara?

Gernikako Yaiza, Ania eta Aser Cid Foruria neba-arrebak, Ainhoa Oar ekintzailea, eta Mili Choque eta Vito Cacciapaglia sukaldariak gara NÖVEREK.



Bekoibarra, 13 - 2.3
Gernika-Lumo
· 656 76 62 98
· 677 83 25 57
www.noverek.es



**GARAGARDOAREN
KULTURA BERRIA
DESKUBRITU
NAHI DUZU?**

boga.eus

@boga.garagardoa @CervezaBoga @BogaGaragardoa



Errigoiti

Paseatzeko leku ederrez betea



Maria Angeles Etxebarrieta Etxebarrieta
GOIKO ARGAZKI BIRIBILA: Ibai Urrutia Arandia



**Garbiñe Zorrozueta Asla eta
Maria Angeles Etxebarrieta Etxebarrieta**
(Paseozaleak)

**«Aukera asko daude
paseo ederrak emanaz
bete-bete
gozatzeko naturaz»**

Goitik behera ezagutzen dituzte Errigoiti-ko bazterrok Garbiñe Zorrozuak eta Maria Angeles Etxebarrietak; paseo luzeak ematen dituzte elkarrekin. Eta horretarako ados jartzen diren arren, bakoitzak bere gustuko txokoak dauzka.

Maiagarako bidea maite du Etxebarrietak. «Mendi txikitxo bat da, erraz egiteko modukoa; zuhaitz askokoa. Txikitan askotan aitarekin joaten nintzen, eta leku berezia dauka nire bihotzean.

Orain gutxiago, baina lehen bailara guztia ikusten zen bertatik. Leku esanguratsua ere bada, 36ko gerran frontea egon zelako, eta gogoan dut ni umea nintzela jende asko igarotzen zela bertatik; gerran ibilitakoak edo haien senideak. Geodesiko bat ere badago, 1975etik babestuta dagoen elementu bat».

Bideetako bide

Zorrozuak Eleizaldetik Posuetarantz jotzen du gus-tuko kaminoa egiteko. «Santiagoko Bidea pasatzen da bertatik, eta horixe da atseginena niretzat, Gernikarantz doan bide zati hori», esan du. Hala ere, aukerak nonahi dira. «Nahiz eta aldatas asko egon —onartzen du—, egingarri dira guztiak». Horren kontura gehiago dio Etxebarrietak: «Bide asko ez-kontzen dira; aukera asko daude paseo ederrak emanaz naturaz bete-bete gozatzeko».

GAU EDERRAK

Karabanarekin edo furgonetarekin
gaua igarotzeko leku aproposak:
SALLOBANTE eta ELIZALDEko APARKALEKUAK
[Oharra: EZ DIRA ZERBITZU AREAK]

ERRIGOITIKO UDALA

Uria auzoa, 1
94-625 41 90
Faxa: 94-625 64 69
errigoitalkatea@gmail.com • udala@errigoiti.eus
www.errigoiti.net

Zatoz Gernikako Bakearen Museora!

Bakeaz, Giza Eskubideetaz eta Gernikako bonbardaketaz arituko gara. Bizirik irten zirenek beraien bizipenak kontatuko dizkigute. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa.



Astelehenak eta igandeak: 10:00-15:00

Asteartetik larunbatera: 10:00-19:00



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Foru plaza,1. Gernika-Lumo
94 627 02 13 / museoa@gernika-lumo.net
www.museodelapaz.org

Gaulegiz Arteaga

Marearteko azalerak



Babestu beharreko kultur ondarea

Marearteko azalerak edo kostaldeko hezeguneak bizi-aberastasun iturri izan ziren urteetan Gaulegiz Arteagako baserrietan. Padurari irabazitako azalera handi horiek landatzeko eta abereei larrea emateko erabiltzen ziren. Itsasoari irabazitako lurak mantentzea sozializazio-lana zen, inguruko baserrien artean partekatzen baitzen. Gaur egun ere, landariak sasoi bateko aztarnak gordetzen ditu.

Unitate topografiko bakoitza aldatu egiten den arren, nola lor daitezke marearteko azalera horiek? Oro har, hiru eragiketa egin behar dira: lehenik eta behin, aukeratutako eremua lurrez itxi behar da, egindako dike perimetralekin (munekin), eta, ondoren, uretara ematen duten aurrealdeetan, hare-harrizko hormekin sendotu. Bigarrenik, barruko urak zangen eta ponpaketaren bidez drainatu behar dira, eta kanpoaldera bideratu, dike perimetralean irekitako uhateen bidez. Hirugarrenik, lurzorua hobetu behar da, landu daitezkeen azalera sortzeko. Batzuetan, ibaiertzeko landaredia -haltzak, sikomoroak, gatzainondoak- landatu izan da,

sendotzen laguntzeko. Prozesu horren ondoriozko lurrei polder deitzen zaie, zentzu zabalean.

Gero eta hiri-garapen handiagoaren edota padurak berreskuratzearen ondorioz polderrak azkar higitzen ari direla kontuan hartuta, polderrak eratzeari ekarri zuten prozesu historikoak ikertzea premiazko zeregina da, eta horrek ondorioak ditu lurraldearen plangintzan, arrisku naturalen ebaluazioan eta kultura, etnografia eta soziologia ondarearen babesean. Ondorio horiek Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak finantzaturako lan batetik atera dira. Aranzadi Zientzia elkarteko Josu Narbarte egin zuen lana, EHUko ikerketa taldearekin batera.

GAULEGIZ ARTEAGAKO UDALA



Herriko Enparantza, 1

94-627 52 27

faxa: 94-625 29 53

udala@gautegizarteaga.eus

www.turismogaulegizarteaga.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

ZURE ZAIN GAITUZU



Mundakako
itsasadarraren
bihotzean



EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta
masaje terapia



LORATEGIA

Lorategi zoragarria
itsasora begira



NATURA

Naturazaleentzat
ihesaldia egiteko
toki paregabea



inspiratu zaitez



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19
48317 Sukarrieta – Bizkaia
(sarbidea, Gautegiz-Arteagatik)

<https://casarural-kanala.com/>

casaruralkanala@gmail.com

666680801/618774398



Kortezubi

BISITA MOTAK

Norbanakoak: Parkeko sarrean azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaiotzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokiak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia (irailaren 1etik ekainaren 30era):

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara [15:00etan irteteko]. Larunbat, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 [18:00etan irteteko].

Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra):

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara [19:00etan irteteko].

PREZIOAK

Norbanakoak:

Helduak 9 euro eta umeak 5.

Taldeak: Bisita gidatueterako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gidaria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



Basondo, basafaunaren babesleku

Basurdeak, orkatzak, oreinak, azeriak, basakatuak... Inguruko animalia ezagunak zein gaur egun Euskal Herrian desagertuta daudenak biltzen dira Basondon. Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue antzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Ez da zoologiko bat, basafaunaren babesleku bat baizik. Animalia gehienak Berreskuratze Zentroetatik etorritakoak dira. Ia denek sendaezinak diren kalte batzuk dituzte eta, beraz, ezinezkoa da naturara berriro birsartzea.

Horrez guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere egiten dituzte.

Animaliez eta naturaz gozatzeko leku aproposa da faunaren aterpe hau. Bisitariei animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen diete eta, esaterako, bisitetan taldekideen adinaren arabera naturari buruzko azalpenak ematen dituzte.



BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi
94-625 44 36
info@basondo.com
www.basondo.com



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30

www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs

EUSKAL SOUVENIRS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*



URDAIBAI
experience

Urdaibaitik mandara...

Mandatik Urdaibaira

GERNIKA * ANDRAMARI KALEA

+34 622 01 71 75

aupa@urdaibaixperience.com

www.urdaibaixperience.eus



→ Ezagutu
URDAIBAI
gure bisita
gidatuen
bidez

Bisita kulturalak
eta mendi ibilaldiak
eskola, enpresa,
familia eta
kuadrillentzat
Tourrak txalupan




Murueta

Andra Mariaren Jaiotza eliza



Eliza, herriaren ondare

Muruetan, Elizalden, hain zuzen ere, herritarrek batzen diren gune nagusian kokatuta dago Andra Mariaren Jaiotza eliza. XIX. mendeko eraikin neoklasiko ederra da, eta herrian eta herritarrek ondare dutena. Horrela izanik, Muruetako Udalak eta Muruetako Parrokiak lankidetzaz hitzarmena sinatuta daukate. Hala, udalak eliza erabili dezake herritarren gozamenerako diren eta orokorrean kultura sustatzeko laguntzen duten askotariko ekimenak antolatzen.



XVI. mendearen amaieran, Muruetako herritarrek baseliza baino maila handiagoko eliza eskatzen zuten; bitartekoen faltak, hala ere, saiakera behin eta berriro geratu zuten. 1774an hasi ziren eliza eraikitzeko diligentziak, eta kontsultak egiten hasi ziren. Diru nahikoa izan arte, hala ere, emaitzak ez ziren gauzatu. 1829an, Andra Mariaren irudia gaur egungo elizara eraman eta baseliza behin-behineko kanposantu moduan geratu zen. 1829 eta 1852 bitartean, eliza berria parrokia modura erabili zuten.

Antonio Goikoetxea arkitektoak diseinatu zuen Andra Mari eliza; 1849 eta 1852 artean, bermeotarra izan zen planoak egiteko eta lanak zuzentzeko arduraduna. Muruetako elizan elementu arrazionalistak, erromantikistak eta tradizionalistak nahastu zituen. Goikoetxeak bertan utzi zuen bere lanik bezienetako bat.

Hiru aldare

Muruetako Andra Mariaren Jaiotza elizak hiru aldare ditu. Bata, epistolakoa, 1894 urte aldera eraiki zuen Paskual Aurrekoetxea eskultore Jaun bilbotarrak. Bigarrena, Ebanjeliokoa; Arrosarioko Ama kokatzeko eraiki behar zutena, 1897an egin zuten. Margorik eta doraturik gabeko erretaula egin, eta Gabriel Toinak margotu zuen. Hirugarren erretaula, berriz, 1901ean eraiki zuten; pintura Durangoko Pascual Burgadak egin zuen.

Elizak, gainera Christophe & Etiennek 1899. urte inguruan eraikitako armonioa gordetzen du bere baitan. Urdaibaiko Organoak Joxe Mari Egileor kontzertu zikloaren baitan, 2021ean lehenengoz entzun ahal izan ziren armonioaren doinuak Muruetan, eta aurten, abuztuan, poesiak eta musikak bat egin zuten. Benantzi Bilbaoren doinuekin lagunduta, Patxo Telleria aktoreak euskarriak irakurri zituen.

Elizaren atea zarratuta egoten dira. Hala ere, domeketako mezak edo ospakizunak baliatuta, barrura sar daiteke eta bisitatu.



**MURUETAKO
UDALA**

Kanpantxua, 3
94-625 24 51
udala.murueta@bizkaia.org
www.murueta.eus

AZAROAK
13
igandea



BISITA GIDATU
BEREZIA OINEZ
**ARROLAKO
OPPIDUM-ERA**

A R R O
L A U N E

ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETATIO
ZENTROA



IGANDE GUZTIETAN ZABALIK
10:00-14:00 ARRATZU
Sarrera doan


9:00h ARRATZU

PREZIOA: 15€
(Km0 Txakolina edo antzeko bat barne.)

AURRETIZKO ERRESERBA
634 243 762



Visit
Urdaibai



Bermeon



Apartamentu Turistikoak
Talakoetxea, 1 | 626 89 16 61
andramariapartamentuak.com

Muxika

San Roman auzoko artea



Koldo Gezuraga Sejjido



**Koldo
Gezuraga Sejjido**
[Bertsolaria]

**«Oso berezia da,
adarrak alborantz
hazita daudelako,
nahita horrela moztuta»**

Erakargarria da Muxika ingurune naturalaz gozatu nahi dutenentzat; ondare ederrez betea bere azalera zabalean —50,2 kilometro kadrako hedadurarekin, Bizkaiko zazpigarren udalerririk handiena da—, eta berdea edonora begiratuta ere. Baina elementurik dotoreena etxe parean dauka Koldo Gezuraga Sejjido bertsolariak dioenez, San Roman auzoan: Urkietako artea. «400 urtetik gora dauzka, eta berezi-berezia da, adarrak alborantz hazita daudelako, nahita horrela moztuta, bai ganadua, bai egurra babesteko», azaldu du.

Ermita oso ezaguna dago San Roman auzoan,

eta hark erakarrita joaten dira hainbat eta hainbat lagun bertaraino —Gazte Eguna ere ospatzen dute bertan muxikarrek—, eta, bide batez, arteaz gozatzeko ere aprobetxatzen dute bisita. «Oso toki ezaguna da muxikar guztientzat, eta bertoko zein kanpoko jende ugari etortzen da ikustera».

Berezietaeder

Altueran baino gehiago, bere adarren zabaleran nabarmentzen da: 26 metroko diametroa dauka haren estalkiak. 1994an EAEko aparteko zuhaitz katalogatu zuten, eta nabarmendu haren tamaina, edertasuna, hostailaren trinkotasuna eta hazkuntzaren ondoriozko morfologia berezia.

«Gainera, oso leku polita da, albotik Arburu eta Bizkargi mendietara joateko bidea daukalako —Bizkargi oso mendi ezaguna da 36ko gerra sasoitik— eta beste leku batzuetarako bide ere badelako. Esate baterako, hortik Areatzako auzora ere joan ahal zara», dio.



MUXIKAKO UDALA

Ugarte auzoa, 1
94-625 27 01
alkatea.muxika@bizkaia.org
www.muxikakoudala.eus



Airoko pagadia

Ezkutatutako altxorren bidea

Txikia bezain xarmangarria, lasaia bezain aberatsa da Nabarniz. Naturaz, kirolaz, paisaiaz, historiaz eta ondareaz gozatzeko aukera dago herrian. Aisialdi osasungarria eta jasangarria maite dutenentzako aukera paregabea da.

Iluntzarreko tontorrek erakarrita ailegatzen dira asko Nabarnizera, baina ikusten ez diren hamaika altxor batzen ditu udalerrriak: pagadiak, leizeak edota ondare arkitektonikoak. Eta, horietako batzuetaz gozatzeko aukera eskaintzen du 10,5 kilometroko luzera duen eta hiru ordu inguruan egiten den PR-BI 174 ibilbide naturalak.

Bidezidorrak Iluntzarreko gailurrera iristeko aukera ematen du, Elexaldetik irtenda. Merika auzoan pista zabal bat hartuta ailegatzen da tontorre-ra, eta, bertan, Busturialdeko panoramika ederraz gozatzeko aukera dago. Tontorretik bidea jaitsi behar da, mendi larreak iparralderantz zeharkatuz.

Gune horretan, leize ugari daude, hala nola, Ineritzeko leizea, 330 metroko sakonera duena, Busturialdeko eta Lea-Artibaiko sakonena. Espeleologoak ur korrontea jarraituz ailegatzen dira sakonera horretara, baina, urek, handik aurrera egiten dute, Iluntzar mendia barru-barrutik gurutzatuz eta erreka nagusiarekin lotuz. Erreka Paltzuaraneko sakako urzuloetan hasten da eta Aulestiko Lezateko koban irteten da, Lea ibaiarekin lotuz.

Ineritzetik, Airo aldera doa bidea. Baserri handi

baten hondakinak aurki daitezke han, eta, ondokoan, inguruko ondare etnografikoaren altxor baliotsuetako bat: Airoko pagadia. Gaur egun, 100 pago motzez osatutako baso txikia da, iraganean zuraren aprobetxamenduari estuki lotuta zegoena eta eremu handiak hartzen zituenen, Airoko pago ospetsuak adierazten duen modura.

Pago horrek 2 metro eta 10 zentimetroko diametroa zuen, eta, hori botatzeko, Nabarnizko kuadrilla batek trontza-zerra berezia eraiki behar izan zuen. 1949an, Juan Jose Narbaiza *Luxia* aizkolari azkoitiarrak lau ordutan mozteko apustua egin zuen Debako Santiago egunean, baina ez zuen lortu pagoa ebakitzetik. Apustuak apustu, zuhaitz espezie exotikoen landaketa masiboen gainetik denboran bizirik iraun duen leku magikoa da pagadia.

Handik, pista zabal batek Kurtziaganako bidegurutzera hurbiltzen du oinezkoa, eta, bertatik abiatzen da Ikazurieta auzora jaisten den galtzada zaharra. Baratze eta larre artean ibilaldia eginda, Uribarri auzora iristen da bidea, Elexaldera igotzeko.



**NABARNIZKO
UDALA**

Elexalde auzoa, 14
94-625 50 77
udala.nabarniz@bizkaia.org
www.nabarniz.eus

Aulesti

Urregarai eta Bedartzaundi



Gema Mendieta
[Alkate ohia,
irakaslea eta
kultur eragilea]

«Jantzileku Santa Eufemi jaira zetozenentzako atea zen»

Ingurune berezi bat badago aulestiarrentzat, zalantzarik gabe, gune hori Bedartzaundi eta Urregarai aldea da. Eta, paraje eder horretatik, hiru txoko ditu gustukoenak Gema Mendieta. Hiru txoko ez hain ezagunak, baina erabat ikusgarriak eta ezagutzea merezi dutenak: Jantzileku, Pagadia eta Pausaleku.

Markina-Xemein alderantz, elkartearen atzean dagoen aldapa igota dago Jantzileku. Santa Eufemi jairako atea zen. Goixerri aldetik, Santutxutik, Amoroto eta Lekeitiotik oinez zetozenak, gora igotzen zutenean, hori zuten muga. Zabalgune txiki horretan abarkak eta jantziak kendu, eta azken aldapa dotore jantzita egiten zuten erromeriara zihoazenek. Alde batetik, toki alaia izango zela uste du Mendieta. Bide luze eta gogorra eginda iritsiko ziren Jantzilekura, ilusioz bete-

tako kuadrillak. Baina, aldi berean, leku tristea ere bai. Jaia amaituta, berriro arropak aldatu, eta bertatik, etxerako bidea hartu beharko zutelako. Mendieta arena zen ibilbide hori egiten zuenetakoa bat. Goixerri aldekoa izanik, bide hori hartzen zuten urteroko hitzordu garrantzitsuenara joateko. Ohiturak aldatzean, ahanzturan geratu zen Jantzileku, baina mendi martxek berreskuratu egin dute.

Pago gutxi baina ikusgarriak ditu zelaiaaren barrenean dagoen pagadiak. Hasiera batean leku iluna dirudien arren, alaitasunez betetako lekua da, bertan egiten dira irrintzi txapelketa eta erromeria, esate baterako. Adarrak zerurantz altxatzen dituzten pagoen indarra eta sendotasuna hautematen da. Pago horiek, era berean, gune hori leku bildu eta babestu bihurtzen dute.

Mendieta hiru garren txoko kuttuna Santa Eufemi ermitarako eskailerak igo orduko dagoen Pausaleku da; lasai egoteko lekua, arnasa sakon hartzeko edota pentsamenduak gaurkotzeko lekua. Ikuspegi ikusgarria dago bertatik. Zerumugan, alde batetik, amaierarik ez dutela diruditen mendilerro ezberdinak eta, bestetik, Jantzileku eta kostaldearen ikuspegi, itsaso zabaleraino.



**AULESTIKO
UDALA**

Donibane enparantza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus



Aisialdiaz
eta kirolaz gozatu
inguru euskaldun
eta atseginean



BERRIATUA
ELIZATEKO
UDALA

Herriko plaza, 1
94-613 70 30
faxa: 94-613 70 27
udala@berriatua.org
www.berriatua.org

Antsotegi hotela eta jatetxea



Aktibitateen faktoria

Antsotegi, XIX. mendeko burdinola zena, harriz, egurrez eta natura zein historiarekiko begirune handiz berregin zuen Hernando familiak. Harrez gero, Gontzal eta Julen anaiek era guztietako aisialdi aktibitateen faktoria landu dute bertan.

Alde batetik, 14 logelaz osatutako hotel dotorea da: oporleku lasaia, errimesen atseden lekua eta enpresako zereginetan datozenen aterpe zaindua ere bai. Baina, horrekin batera, Antsotegik jate-txe bezala ere oso eskaintza zabala dauka. Aste-buruetan menu bereziak (30 €), eta karta daude aukeran. Oste-gun, ostiral eta igande gaue-tan, eta larunbat zein igan-de eguerdian kazola-txoak eta etxeko labean egindako pizzak ere eskaintzen dituzte. Eta eguneroko menua ere eskaintzen dute (13 €), lehenengo eta bigarren plater zein postreetan hiruna aukera landuta. Ahal duten guztian bertoko produktuekin sukaldatzen da Antsotegin: Hamen Bertokoa Lea-Artibaiko elikagaien sustapenerako ekimenaren bultzatzaileak dira, hasieratik.



Aktibitatea naturan, ume zein nagusientzat

Orainsu ipini dute hotelaren ondoan 6 urtetik gorako umeentzako abentura parkea. Bertan, sei froga desberdin dituzte aukeran gaztetxoek. Pedalezko kart zirkuitua ere martxan dago azarora arte:

sei lagunekoko taldeentzat atontzen da, aldez aurretik erreserba eginda.

Emilio Hernando alpinista zenaren semeak izanik, mendia eta natura oso presente daude Antsotegiren ariman. Esate baterako, hotelean ostatu hartuta daudenekin egunero bazten da Gontzal, eta ordubetez edo gehiagoz, hainbat ibilbideren gaineko aholkuak ematen dizkie. Julen anaia, berriaz, Leaktibai turismo aktiboko enpresa kudeatzen du, eta Antsotegi hotela bera da abentura ekintzen informazio guneetako bat. Lekeitioko Dzinguarekin elkarlanean dihardute, eta modu horretan, hotel bakarra da bi jarduerak leku berean uztartzen dituen: hotelarena eta turismo aktiboarena. Puenting, arroilen jaitsiera, tirolinak, eskalada, espeleologia, surf, stand up paddle, BTT eta mendi ibilaldiak daude Leaktibaik antolatzen dituen jardueren artean. Umeentzako tailerrak eta lagun taldeentzako ginkanak ere eskaintzen dituzte.



ANTSOTEGI · **ANTSOTEGI HOTELA**
HOTELA | JATETXEA



Antsotegi errota ·
Altzaa auzoa, 15 · Etxebarria
94-616 91 00
antsotegi@antsotegi.com
www.antsotegi.com
www.leaktibai.eus



**ETXEBARRIKO
UDALA**

- Peñanekua Plaza, 1
- 94-616 64 32
- www.etxebarria.biz

Urko ibaiaren ertzean... Etxebarria!



ANTSOTEGI
HOTELA | JATETXEA

Antsotegi Errota
Altzaa auzoa, 15
94-616 91 00
antsotegi.com



**IRV BIDE
TABERNA**

Erribera, 3
94-616 65 50



Olaia
jatetxea

Altzibar auzoa
94-616 63 94



OTSOLO
taberna

Erbera, 10
94-616 96 90



TXOMIN
PENTSIOA

Erbera, 12
94-616 82 22

Ispaster

Bidegorria



Aritz Erkiaga
[Puntista]

«Polita izaten zen zelan iluntzen zuen hemendik ikustea»

Egurrezko hiru banku daude Ispasterko bidegorriaren amaieran. Gaur egun galtzada harritz inguratuta, hamarkada batzuk aurrera, harri kirriz betetako bidea zen. Toki paregabea udalerrria goikaldetik ikusteko, talaia bailitzan. Aritz Erkiaga puntista ispastertarrak herriko txokorik kuttunena du, batez ere, lagunekin bizitako oroitzapenez beteta dagoelako.

Markina-Xemeinen bizi zen aste barruan, aitak bertan irakasten zuelako, eta asteburu denetan, jaiegunetan eta udan, Ispasterrera joaten ziren, etxera. Gaztaroan, 16-18 urte zituenean, udako arratsalde askotan joaten zen lagunekin bidegorria amaitzen den lekura. Lasai egoteko aukera

zeukaten egurrezko bankuetan edota haien inguruan lurrean jesarrita. «Dena ikusten genuen handik, eta udan, batez ere, polita izaten zen zelan iluntzen zuen hemendik ikustea». Ogitarte-koarekin joaten ziren, eta hantxe egoten ziren gaua egin arte, bateko eta besteko kontuak konstatzen. «Behin, bide erdian etzan, eta izar-euria ikusi genuen». Zirimiria egiten zuen egunetan, zuhaitzek ematen zieten babesa eta aterpea.

Herrigunetik Ogellako bideko mendi tontorre-raino heltzen da bidegorria, eta handik gertu dago bere familiaren baserria ere: «Nire amumaren nebak hortxe tontorrean harrieekin izenak ipini zituen eta bankutxo bat egin zuen. Lotura sentimental bat ere badauka niretzat leku honek».

Otoiora joateko bidezidor bat ere badago bertan. «Otoiora ere joaten ginen lagunak, paseoak ematen genituen hango antenara, han ere oroitzapen oso onak ditut. Gaur egun, jende asko ibiltzen da joan-etorrian. Leku paregabea da».



ISPASTERKO UDALA

Elخالde auzoa, 9-1. solairua
94-684 40 25/ 94-684 29 99
faxa: 94-624 34 70
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus



EGUENGOIKO

JATETXEA

Gure baserria XVII. mendekoa da,
eta gaur egun guztiz zaharberritua
izan da, garai bateko xarma
errespetatuz.

Naturaz inguratuta, Ispasterretik
5 minutura gaude, Lekeitiotik
8 kilometrora, eta Bilbotik eta
Donostiatik ordu batera.

Eguen Goiko leku aproposa da
ibilbideak egiteko, konpainia on
batez eta merezitako atsedenaz
gozatzeko.



JATETXEA

Euskal sukaldaritza.
Gure jatetxeak kalitate
handiko produktuekin
egindako plateren aukera zabala
eta anitza eskaintzen du.

Gure espezialitateak
abangoardiako ukituak dituzten
txingarretan oinarritzen dira.



LOGELAK

Hegoaldeko eta Ekialdeko
apartamentuak, lorategira eta
urmaelera begira, egongela,
sukalde osoa, bainugela,
logela ohe bikoitzarekin eta
ohe indibiduala duen
altuerarekin hornituta daude.



TABERNA

Errazio erdiak pikoteorako.



TERRAZA

Gure lorategiaz gozatzeko
gunea, eta mokadu eta
bermuten karta zabala,
ikuspegi onenekin.



EKITALDIAK

Ekitaldi ahaztezin bat
antolatzen ari bazara,
jar zaitez gurekin harremanetan,
pozik egongo gara
egun seinالاتu horretarako
lekua gordetzeko eta.



APARTAMENTUAK ❀ JATETXEA ❀ TABERNA ❀ TERRAZA

94-662 05 85

aco.eguengoiko@gmail.com

ISPASTER

Lekeitio

Zubieta



Bengolea



Guillermo Ruiz de Erentxun

Industri kulturaren habi

Urratsean aurrera egin ahala atzera egin daiteke. Historiaz blaitu, sustraietara jo; lehengoa antzeman orainean. Adibide garbia Lea ibilbidea da, GR-38 Ardoaren eta Arrainaren ibilbidearen baitan. Horretarako, ordea, begi ernea behar da; non begiratu jakin. Europako ondare jardunaldietan, Gizaburuaga eta Lekeitio arteko bisitak emango du horretan saktontzeko era, Guillermo Ruiz de Erentxun Atabaka elkarteko kidearen begirada zorrotzaren pean.

XVIII. mendean aldaketa handia bizi izan zuen bailarak, hainbat faktore tarteko. Pedro Bernardo Villareal de Berrizen etorrera izan zen horietako bat. «Gizaldiaren hasieran, ingeniari arrasatearra Rosa Maria de Bengolearekin ezkondu zen, Gizaburuagako Bengolea burdinolaren jabea, eta bere ingenio hidraulikoen bidez burdinolaren aktibitateari ikuspegi industrialak eman zion, sekula ez bezala», gogorarazi du Erentxunek. Borboiek suzesioko gerra irabazita —Bizkaia eta Gipuzkoa haien alde agertu ziren—, armak egiten hasi ziren, eta komertzioa handitzen. «Hori dena 'ikus' egiten da; usaindu; Bengolean bertan, inguru ezin ederragoan jauregi, errota eta presa parez pare ditugula, baita hortik Lekeitiorako bidean sakabanatuta dauden burdinola eta ingenio hidraulikoetan ere, denak Villareal de Berrizen asmakizun», azaldu du.

Hori dena bisitariari ikusaraztea izango da Atabakakoaren erronka. «Ikusten dena baino haruntzago joan nahi dut, atzean dagoena adierazi,

eta aditzera eman zelan pasa zen lur pobrea aberats izatera».

Gizarte prestatua

Jendartea izan zen gakoa, gidariaren arabera. «Gizarte osoa zegoen horretarako prestatuta, besteak beste, arotzak, baserritarrak, igeltseroak, harrobi-ko langileak eta ikazkinak. Alegia, XVIII. mendean komunitate bat sortu zen, orain auzolan izendatuko genukeena», azaldu du.

Hori dena ondarea da berak dioenez; ondare historikoa eta kulturala. «Eta nire ustez, berreskuratzekeo eragile izan behar da turismoa».

Azken txanpan, Lekeitio, bertoko arraina eta Arabako Errioxako ardoa dastatu ahal izango da, eta ibilbidean ikusitakoaz hausnartu.

BISITA GIDATUAZ JAKIN BEHARREKOAK

Ibilbidea: **Gizaburuaga-Lekeitio**

Eguna: **Urriaren 31**

Ordua: **09:15ean, Lekeitioko Bizkaibus geltokitik**
Iraupena: **3 ordu**

[Oharra: Jantzi eta oinetako erosok ekarri]

 **lekeitioturismo.eus**

TURISMO BULEGOA

Independentzia enparantza • **94-684 40 17**
turismo@lekeitio.eus

LEKEITIO 697. URTEURRENA ONDARE JARDUNALDIK 2022

URRIAREN 28an, barikua, 19:00etan,
Kultur Etxeko Azkue aretoan:
Hitzaldia: **"LEKEITIOKO SANTA MARIA
MONASTERIOAREN FUNDAZIOA".**

Euskaraz.

2022ko azaroaren 3an 697 urte beteko dira Lekei-
tio hiribildua sortu zenetik. 1325ean bere historia
ofiziala hasi zen. Baina, Hiribildua sortu aurretik,
aforamendu-gutunak adierazten du Lekeitioko
lurraldea eta ingurua populatuta eta antolatuta
zegoela. Iñaki Madariaga Vallek garai hartaz hitz
egingo digu.

URRIAREN 29an, zapatua, 11:30ean, gazteleraz
eta 12:15ean euskaraz:

Bisita gidatua: **"MARIERROTA, XVI. MENDEKO
MAREA ERROTA".**

Testuinguru ekonomiko oparoan, 1555ean, Lekei-
tioko kontzejua marea-errot bat eraikitzen hasi
zen. Europako iparraldetik zetorren teknologia
berria erabili zen. Errotaren barrualdea bisitatuko
da eta bertan bi bideo ikusi ahal izango dira: bata
paduraren biodibertsitateari buruzkoa eta bes-
tea errotaren historiari buruzkoa. Ondoren, haren
funtzionamendua azalduko da.

URRIAREN 30ean, domeka, 11:00etan, isuntza
hondartzan:

Bisita gidatua: **"SAN NIKOLAS EDO GARRAITZ
IRLAKO PARKE ARKEOLOGIKOA".** Euskaraz.

2019ko otsailean, Garraitz edo San Nikolas uhar-
tea parke arkeologiko bihurtzeko izapideak hasi
ziren, haren ondare-balio aberatsa, kulturala zein
naturala babesteko eta zabaltzeko. Garai kronolo-
giko zabala (XIV- XIX) hartzen duen aztarnategia
dago uhartean eta eraikin ugari gordetzen ditu.
Alfredo Morazak, 2014tik indusketez arduratzen
den arkeologoak, gidatuko du bisita.

URRIAREN 31n, astelehena, 9:15ean,
Lekeitioko autobus geltokian:

Bisita gidatua: **"GR-38, ARDOAREN ETA
ARRAINAREN IBILBIDEA".** Euskaraz.

GR38 bidezidorra, ardoaren eta arrainaren ibilbi-
dea izenez ezagutzen dena, Arabako Errioxa eta
euskal kostaldea lotzen zituen bide komertzial
zaharra da. Gizaburuaga-Lekeitio tarteko ibilaldi
gidatua egingo da, Guillermo Ruiz de Erentxu-
nen eskutik. Paseoan zehar, Lea ibarreko natura-
kultura- eta industria-ondarea osatzen duten ele-
mentu batzuk ezagutuko ditugu. Amaitutakoan
Lekeitioko arraina eta Arabako Errioxako ardoa
dastatu ahal izango dira.

AZAROAREN 3an, eguna,
HIRIBILDUAREN 697. URTEURRENA.

12:00etan: **BOLANDERAK eta ANGELUSA.**

AZAROAREN 5ean, zapatua, 12:00etan:
ERRALDOIAK eta BURUHANDIAK,
kalerik-kale.

AZAROAREN 6an, domeka, 12:30ean,
plazan:
BIZKAIKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA
(2. maila).

OHARRA: Urriaren 29, 30 eta 31ko ekitaldietarako izena eman beharko
da urriaren 24tik 28ra (biak barne), 9:00etatik 11:00etara, 688727095
telefonora deituta (dei galduak eta emailak ez dira erantzungo). Dei
bakoitzeko izen bi hartuko dira.
Gainerako ekitaldietara joateko ez da izenik eman behar; unean uneko
aforoa bete ondoren, atea zarratuko da.




lekeitioko
udala



Markina-Xemein

Arretxinaga



Mikel Reina Barros



Txomin Juaristi
[Txirrindularia]

«Herrian banago, ez ditut Arretxinagako jaiak galtzen»

Arretxinagak «harriak datzaten tokia» esan nahi du. Txomin Juaristi Euskaltel-Euskadiko txirrindularia ume eta gazte izanik askotan ibili izan da Markina-Xemeingo Arretxinagan. Txikitan lehengusua bertan bizi zen, eta hura bisitatzea joaten zenean plazan amaitzen zuten jolasean. Gero, gaztaroan, kuadrillako lagun bat zen inguruko baserri batean bizi zena. Momentu «gogoangarri asko» bizi izan ditu Arretxinagan. Istorio eta historia asko daude bertan.

Arretxinagako Mikel Deunaren baseliza bezalakorik ez dago, kuartzozko harrizko hiru bloke han-

di ditu barnean, forma espezifikorik gabea eta giza-kiak landu izanaren zantzurik gabea. Harkaitzak duela berrogei milioi urtekoak dira. Elkar eusten dute eta kapera itxura hartzen dute. Erdian San Migel Goiangeruaren irudia dago. Kondairak dioenez, urtebete baino lehen ezkondu nahi duen mutilak hiru aldiz pasatu behar du tartetik. Batek daki horren historia. Juaristiren osabak txikitan kontatutako istorioaren arabera, «harriak meteorito zatiak ziren». Horrek «fantasia puntua» ematen dio tokia-ri, oroitzapen bikainak ditu bertan.

Arretxinagako San Migel jaiekin ere zuzenean ditu lotuta bizipenak Juaristik. «Umetako buruhandi eta bolanderetatik, gaztarako lehen kontzertuetara». Beste markina-xemeindar askorentzako bezala, sanmigelak izan ziren Juaristiren nerabezaroko lehen jaiak: «Herrian banago, ez ditut jaiak galtzen».



MARKINA-XEMEINGO UDALA

Goikoportala, 3
94-616 74 54

Whatsapp: 688 84 49 95
udala@markina-xemein.eus

www.markina-xemein.eus
www.markinaxemeinturismoa.eus

Natura
Kirola
Aisialdia
Gastronomia
Munitibar.

Informazio guztia



labur.eus/munitibar-turismoa

Mendi-ibilbideak

Oiz, Motrollu, Kanpone, Lea ibilbidea...

Lasai-guneak


Bengola, Mintegi osteko zelaia...

Zerbitzuak

Tabernak, jatetxeak, denda...

Mutriku

Ipar kalea (Katu kale)



MUTRIKU, HIRIGUNE HISTORIKOA

Mutrikuko Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendatuta dago. *Mutriku Marinela* edo *Arrietakua Jauregia* bisita gidatuek bertako historia zein istorioak ezagutzeko aukera ematen dute.

www.geoparkea.eus

Naia Arantzamendi



**Arantza
Ugarte Lopetegi**
[Herritarra]

«Zazpi urte daramatzat egunero-egunero kale honetatik igarotzen»

Aldapak eta kale zidorrak, Mutrikuko herriaren berezitasun eta xarmaren adierazle diren horiek. Nahi adina kale, nahi adina bizipen eta nahi adina istorio herrian barrena. Kale bat edo beste, aukera norbere esku dagoenean, hautu bilakatzen da nondik igaro. Ugarteren hautua Katu kaletik igarotzea da.

«Zazpi urte daramatzat egunero-egunero etxetik atera, eta igerilekurako bidean kale honetatik igarotzen, hautuz». Berezitasunetan erreparatzean, kaleek istorio eta bizipenak kontatzen dituzte, eta egunero batetik igarotzean, kalea etxe bilakatzen

da. Urtaroaren arabera eguzki izpiek osorik argizatzen dute kalea, edota soilik azkenengo pisuko leihoan isla egiten dute, kalearen itxura eta bizitasuna guztiz aldatuz. Kale-baserri izandakoaren xarma gordetzen dute etxebizitzetako ateen egiturek, leihoen xehetasunek, garai batean izandakoaren isla mantenduz. «Etxebizitzaren egitura eta sarrerak mantentzen dituzte, erreparatuz gero, xehetasun oso politak daude kale honetan».

Haizearen babesleku

Kalean sartu eta haizetik babestuta sentitzean, bizilagunekin topo egin eta kontuak kontatzean, herri giroa eta bizilagunenganako hurbiltasuna eskuara jartzen dira. Eguraldiaren babesean kalea igaro eta hurbiltasunak ematen duen berotasuna sentitu ondoren, Atxukalera ateratzen da Ugarte. Haizearen noranzkoa, indarra eta freskotasuna aurpegian sumatuaz batera, prest egoten da egunari ekiteko.

Geoparkea
Eusko Kontakidea - Costa Verde

mutriku
TURISMOA

TURISMO BULEGOA:
Txurruka Plaza, z/g
943-60 33 78
turismo@mutriku.net
www.mutriku.eus

MUTRIKUN

YURRITA PRODUKTUEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, eta bestelako gourmet produktuak.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com



Zuzeneko salmenta

Astelehenetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan 10:00-13:00etara.



Zuzeneko salmenta enpresan bertan, nola iritsi:





KRESAL
USAINEZ



**ONDARROAKO
UDALA**

TURISMO BULEGOA

Erribera, 9

Kofradia Zaharra

94-683 19 51

turismobulegoa@ondarroa.eus

www.ondarroa.eus

www.udalbarriak.eus





ZIORTZA - BOLIBAR

askatzailearen sustraieetatik

www.ziortza-bolibar.eus
udala@ziortza-bolibar.com

Udala:
94-616 57 27
Simón Bolívar museoa:
94-616 41 14





LEA IBARRA UDAL
MANKOMUNAZGOA

Ellexalde, 1
48289 GIZABURUAGA
tf.-faxes: 94-684 29 82
leaibarra@bizkaia.org

Administrazioa eta arkitektua: 94-684 29 82
Ongizatea: 94-684 29 63
Garapena: 94-684 44 23



www.leaibarra.eus

munitibar-aulesti-gizaburuaga-amoroto-mendexa



MUNITIBAR

-  **SINDIKATU.**
San pedro kalea • 94-616 57 76
-  **HERRIKO TABERNA.**
Herriko plaza • 656 73 65 86
-  **TXORI**
San pedro kalea • 94-616 40 68
-  **ASTORKIGANA.**
Berreño auzoa • 94-625 23 56
-  **GARRO.**
Gerrikaitz auzoa • 94-616 41 36

AULESTI

-  **UBILLA JATETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79
-  **ILUNZAR TABERNA.**
Aulesti kalea, 29
-  **ATXAGARAI ATERPETXEA.**
Urregarai zelaia • 94-627 90 06
-  **UBILLA ATERPETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79

GIZABURUAGA

-  **HERRIKO TABERNA.**
Ellexalde auzoa • 94-684 45 30
-  **AKUIOLA.**
Laixer auzoa • 94-684 12 13

AMOROTO

-  **IBAI-GANE.**
Oleta auzoa • 94-684 13 59
-  **KLAUDIO JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 18 03
-  **EPERMENDI JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 17 62
-  **HERRIKO TABERNA.**
Ellexalde auzoa • 94-624 35 23
-  **ALTUENA.**
Ellexalde auzoa • 94-624 30 89

MENDEXA

-  **KABIA.**
Zelaia auzoa • 94-606 18 08
-  **LAPERRI TXIRINGITOA.**
Karraspio hondartza • 653 744 577
-  **LEAGI JATETXEA.**
Leagi auzoa • 94-684 23 52
-  **MAHAIGANEKO.**
Zelai auzoa • 660 74 62 52
-  **METROKUA TABERNA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
-  **PATXON TABERNA.**
Karraspio hondartza
-  **ZUBI TABERNA.**
Likona auzoa • 629 421 598
-  **ITSAS ERTZ.**
Likona auzoa • 94-624 31 77
-  **ZELAIGANE PENTSIOA.**
Zelai auzoa • 94-624 32 15
-  **ENDAI KANPINA.** Lekeitio ondarroa
errep. 57.8Km • 94-684 24 69
-  **LEAGI KANPINA.** Lekeitio mendexa
errep. 1.5Km • 94-684 23 52
-  **VILLA ITXASO HOTELA.**
Villa Itxaso aldegi • 606 005 005
-  **METROKUA HOTELA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
-  **GARAZAR HOTELA.**
Zelai auzoa • 630 739 835

